

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko URRIAREN 4an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko urriaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Felix Joaquin Asensio Robles
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko irailaren 6an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 6 de septiembre de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larralgo herrian “Saseta auzolandegia 2018 urtean” egindako lanak direla eta, Aranzadi Zientzi elkarteak aurkezturiko fakturaren onespena, hala bada/ Aprobación de la factura presentada por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, por los trabajos realizados en el municipio de Larraul en concepto de “Saseta auzolandegia 2018”..**
- 4. Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen egokitze lanak amaitu direnez, Bixente Otegi Lizaso, S.L.-k aurkezturiko fakturaren onespena, hala bada./Aprobación de la factura presentada por Bixente Otegi Lizaso, S.L., por los trabajos de arreglo del camino que discurre entre la “Plaza de Larraul y los valles Aize y Zeken”.**
- 5. K.V.D.W. andreak aurkezturiko diru-laguntzaren azterketa, hala bada/ Estudio de la petición de Ayuda económica presentada por K.V.D.W.**
- 6. 2018/2019 ikasturtean, Larraulen, Euskal Dantza ikastaroaren zerbitzua emateko Oinkari Dantza Taldeari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Oinkari Dantza Taldea, para impartir un curso de Euskal Dantza en Larraul durante el curso escolar 2018/2019.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. **2018/2019 ikasturtean, Larraulen, Esku Pilota ikastaroaren zerbitzua emateko Iñaki Esnal jaunari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Iñaki Esnal, para impartir un curso de Esku pilota en Larraul durante el curso escolar 2018/2019.**
 8. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
 9. **Beste batzuk/Otros.**
 10. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
- .../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2018 urteko irailaren 6an Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

18/2018 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 21koa, non 2018-kald-000002 Kreditu aldaketaren behin betiko onespena ematea, ebazten duena.

19/2018 Alkatetza Ebazpena, irailaren 14koa, non Srozelai 43-an egiten ari diren lanak geldiarazteko errekerimendua ematea, ebazten duena.

20/2018 Alkatetza Ebazpena, irailaren 28koa, non 19/2018 Alkatetza ebazpena bertan behera uztea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRIAN “SASETA AUZOLANDEGIA 2018 URTEAN” EGINDAKO LANAK DIRELA ETA, ARANZADI ZIENTZI ELKARTEAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

2018ko otsailaren 15ean egindako Udalbatzan, beste gai batzuen artean, Oroimen Historikoa ikertzeko eta oroimen tokiak berreskuratzeko Proiektua onestu zen “Gerra zibila eta lehen Frankismoa”, Aduna-Asteasu-Larraul-Zizurkil 2018. Proiektu honen exekuzioa Aranzadi Zientzi Elkarteari esleitu zitzaion.

Ikusirik aipaturiko proiektuaren exekuzioa Larraulgo herriko poligono 1, 117 lursailean gauzatu dela, uztaileko lehen hamabostaldian.

Ikusirik, Ander Leon zinegotzia ez dela oso gustura gelditu, proiektua aurrera eramateko Aranzadi Zientzi Elkarteak egin dituen gestioekin, eta erakusketa ibiltariari



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

buruz, Asteasuko herrian jarritakoarekin ados, azaldu ez denez, Larraulgo herrian ez egitea erabaki ondoren, fakturatik kentzea eskatu da.

Hau guztia kontutan izanik, Aranzadi Zientzi Elkarteak egindako lanen faktura aurkeztu du, bere zenbateko 19.327,00 euro izanik.

Ikusirik, aipaturiko gastua ordaintzeko 2018ko udal aurrekontuetako 643.336.00.01 partidaren nahiko diru aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aranzadi Zientzia Elkarteak aurkezturiko 1800323 faktura onestea, bere zenbatekoa 19.327 euro direlarik.

BIGARRENGOA.- 40.873,80 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa egin dadin agintzea, udal aurrekontuetako 601.153.20.01 partidaren kargura.

LAUGARREN PUNTUA

PLAZATIK AIZE ETA ZEKEN BAILARARA DOAN BIDEAREN EGOKITZE LANAK AMAITU DIRENEZ, BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.-K AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko uztailaren 26an egindako Udalbatzarrean, Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidea konpontzeko lanen esleipena BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L. enpresari esleitu zitzaioa.

Ikusirik aipaturiko lanak amaitu direla, udal Aholkulari teknikoak bere oniritzia emanik, dagokion faktura aurkeztu da, bere zenbatekoa 45.929,77 euro izanik.


Ikusirik, aipaturiko gastua ordaintzeko 2018ko udal aurrekontuetako 601.153.20.02 partidaren nahiko diru aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Bixente Otegi Lizaso S.L.-k, aurkezturiko 622018 faktura onestea, bere zenbatekoa 45.929,77 euro direlarik.

BIGARRENGOA.- 45.929,77 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa egin dadin agintzea, udal aurrekontuetako 601.153.20.02 partidaren kargura.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA

**K.V.D.W. ANDREAK AURKEZTURIKO DIRU-LAGUNTZAREN
ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik K.V.D.W. andreak eginiko eskaera, non 2018/2019 ikasturtean Euskarako C2 maila prestatu nahi duela. Oraindik, ez omen daki Euskaltegi batean edota Auto ikaskuntza-ren bidez, horretarako Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.V.D.W. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Euskarako C2 maila lortzeko beharrezkoa duen ikastaroa egiteko diru-laguntza ematea. Bai Euskaltegi batean, bai Auto ikaskuntza bidez, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.
- Maila bakoitza behin bakarrik diruz lagunduko da.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:

- % 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.
- %50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.


HIRUGARRENA: Erabaki honen berri K.V.D.W. andreaki ematea.

SEIGARREN PUNTUA

**2018/2019 IKASTURTEAN, LARRAULEN, EUSKAL DANTZA
IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO OINKARI DANTZA TALDEARI
ESLEIPENA, HALA BADA**

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2018-2019 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikuluaen arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oinkari dantza taldeari esleitzea, Larraulgo herrian 2018/2019 ikasturterako dantza klaseak eman ditzan. Guztira, **2.160,00 € (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik.

2018ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Naiara Larrañaga Ariznabarreta andrearekin, "Oinkari dantza taldearen." izenean (IFZ: G20876488), zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2018-2019 ikasturtean zehar, 2018ko urriaren 4tik 2019ko ekainak 20arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan dantza eskolak emateko, ordu bakoitzeko 30,00 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2018-2019 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 72 izango dira. Hori guztira, 2.160,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Nora Urbizu Arozena Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.


BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2018/2019 IKASTURTEAN, LARRAULEN, ESKU PILOTA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO IÑAKI ESNAL JAUNARI ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2018-2019 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Iñaki Esnal Aizpurua jaunari esleitzea, Larraulgo herrian 2018/2019 ikasturterako Esku pilota klaseak eman ditzan. Guztira, **900 € (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik.

2018ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Iñaki Esnal Aizpurua jaunarekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2018-2019 ikasturtean zehar, 2018ko irailaren 17tik 2019ko ekainarte, horretarako egokitutako udal frontoian esku pilota eskolak emateko, ordu bakoitzeko 25 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikasturteko orduak 2018-2019 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 36 izango dira. Hori guztira, 900 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Nora Urbizu Arozena Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.


BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz

ZORTZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOAKO)

ANELI URBIETA	51,10
VICENTE ERRETULAZIOA ETA IRUDIA	302,50
FERRETERIA BARBE	59,28
JOSE ANTONIO ALTUNA	252,10
KIROLZER	53,20
BERRI LANTEGIA	26,95
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	200,53
EBA ERKIZIA	1.035,29
TOLOMENDI	155,55
MAIZPIDE	234,00
MAIZPIDE	265,00
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.170,97
MAPFRE	1.843,33
BULEGOAK	86,88
IRAITZ LIZARRAGA	216,30
ALKAIN	146,40
PEDRO MARIA GALARRAGA	47,47
IBERDROLA	130,28
IBERDROLA	143,65
IBERDROLA	62,88
IBERDROLA	97,47
IBERDROLA	179,67
IBERDROLA	25,26
IBERDROLA	74,77
MOVISTAR	182,11
MOVISTAR	0,58
MOVISTAR	178,19
MOVISTAR	25,40

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.247,11** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


BEDERATZIGARREM PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA